

3/2023 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 26koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa

20. artikulua. Salbuespenak barruko eragiketetan.

Bat. Ondorengo eragiketak egongo dira zerga honetatik salbuetsita:

(...)

23.a Foru dekretu arauemaile honen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera zerbitzutat hartzen diren errentamenduak eta gozamen eta erabilera eskubide errealeen eraketa eta eskualdaketa, horien xedea honako ondasun hauek direnean:

a) Lurrak, landa finka bat ustiatzeko erabiltzen diren nekazaritzako higiezinak barne.

Kanpoan geratzen dira lurraren ustiapenarekiko beregainak diren abeltzaintza jardueretan erabilitako higiezinak.

b) Etxebizitza gisa bakarrik erabiltzekoak diren eraikinak edo eraikin zatiak, edo haien geroko errentamendurako bideratutakoak, azken kasu horretan, betiere, baldin eta errentamendu hori etxebizitzari laguntzeko programa publikoen entitate kudeatzaileek edo sozietateen gaineko zergan etxebizitzaren errentamenduan aritzen diren entitateentzat jasotzen den araubide berezira bildutako sozietateek kudeatzen badute. Garajeak, etxebizitzaren eranskinak eta eraikinekin batera errentan emandako altzariak ere egongo dira salbuetsita.

Salbuespenetik kanpo geratuko dira:

a') Ibilgailuak aparkatzeko lurren errentamenduak.

b') Ondasunak, merkantziak edo produktuak gorde edo biltegitratzeko edo enpresa jardura baten elementuak instalatzeko lurren errentamenduak.

c') Erakusketetarako edo publizitaterako lurren errentamenduak.

d') Lurren edo etxebizitzaren errentamenduak, erosteko aukera ematen dutenak, haien entrega zergari lotuta eta ez-salbuetsita badago.

e') Altzariz hornitutako apartamentu edo etxebizitzaren errentamenduak, errentatzailea behartuta badago ostalaritzari propio dagozkion zerbitzu osagarrietako bat ematera, hala nola jatekoa, lekuaren garbiketa, arropa garbiketa edo antzekoak.

f') Eraikinen edo eraikin zatien errentamenduak, azpierreten emateko direnean, aurreko b) letran xedatutakoaren arabera egindakoak izan ezik.

g') Hiri Errentamenduen Legean xedatutakoagatik etxebizitzekin parekatzen diren eraikinen edo haien zati batzuen errentamenduak.

h') Aurreko a'), b'), c'), e') eta f') letretan aipatu diren ondasunen gainean gozamen edo erabilera eskubide errealeen eraketa edo eskualdaketa.

i') Azalera eskubide errealeen eraketa edo eskualdaketa.